



## **EHUren XXXIX. UDA IKASTAROAK XXXII. EUROPAR IKASTAROAK**

**Carlos Santamaria Zentroa. Donostia**

### **Gaia: NAHI GABEKO BAKARDADEA. POLITIKA PUBLIKOEN EREDUAK ETA HERRITARREN KONPROMISOA**

**2020, irailak 23-24**

Gure gizartea zahartzen ari da, gero eta jaiotza gutxiago dago, familiak gero eta txikiagoak dira, mugikortasuna areagotzen ari da eta bizilekuan sustraiak galtzen ari dira. Horri guztiari oraingo bizi-ohiturak gehitzen badizkiogu, denontzat zailagoa da laguntza-sare bat izatea. Gure gizartea eta familia-ereduak errotik aldatu dira azken hamarkadetan eta, horiekin batera, baita zaintzeko ohiko tresnak ere.

Gainera, badira kultura arteko beste osagai batzuk, migrazio-fluxuen ondoriozkoak, sare komunitariorik ez izatean eragin dezaketanak, eta gabezia horri aurre egin behar zaio. Horren ondorioz, bakarkako bizitza gero eta gehiago nagusitzen ari da gure gizartean, eta areagotzeko joera du.

Eustaten datuen arabera, 2018an, biztanleen %10 bizi ziren bakarrik, eta 2015ean, 4 etxetatik 1ean lagun bakarra bizi zen. Hamar kasuetatik 6tan etxe horretan emakume bat bakarrik bizi zen.

Nahita bilatu ez den eta, gainera, luzaro irauten duen bakardadearen ondorioz, laguntzarik gabeko egoerak sortzen dira, munta handiko osasun-arazo fisikoak, mentalak eta emozionalak sor daitezke eta, areago, gizarte-bazterketa pairatzeko arriskua ere bai.

Arazo honek alderdi asko ditu eta, beraz, ezinbestekoa da administrazioko hainbat eragileren eta sistemaren esku-hartzea gizarte, osasun, kultura, etxebizitza, garraio eta beste zenbait arlotan, eta udal esparruan du proiektiorik handiena. Ikastaro honi esker, Euskadin, Estatuan eta nazioartean dagoeneko dauden programetako eta balizko estrategietako batzuk ezagutu ahal izango dira.

Arartekoak antolatutako ikastaro honetan, hausnartzeko eta profesionalen eta sektoreen artean ideiak trukatzeko gune bat sustatzen saiatuko gara, parte-hartzaileen sentsibilizazioari, konpromisoari eta interes komunei esker, ezagutza eta eskarmentua partekatzeko, nahi gabe bakarrik bizi diren pertsonen egoerak prebenitu, antzeman eta horietan esku hartzeko eta haien beharrei erantzuteko.



Horrez gain, aztertu egin nahi dira bakarrik daudenak babesteko, zaintzeko eta haiek parte hartzeko sare bat sortzen laguntzen duten tresnak, jarduera egokiak eta ekimen sozial eta komunitarioak, gure gizarteko pertsonen arteko harremana hobetzeko.

**Norentzat da ikastaro hau:** bakarrik dauden pertsonekin zerikusia duten sistemetako profesionalentzat (gizarte, osasun, hirigintza, kultura eta beste arlo batzuetako zerbitzuak); berdintasuna sustatzearekin lotura dutenentzat; adinekoentzat; ikasleentzat; boluntarioen elkarteentzat eta beste elkarte batzuentzat.



## EGITARUA

### **Irailak 23. Lehen saioa**

- 9:00 **Akreditazioak eta agiriak ematea**
- 9:15 **Ikastaroaren hasiera**  
Arartekoa eta EHUko ordezkari bat.
- 9:45 **I. ponentzia: Alderdi demografikoak eta soziologikoak. Orain dugun eta gero izango dugun gizartea.**  
Aurkezpena: Manuel Lezertua. Arartekoa.  
Hizlaria: Dolores Puga. Ikerketa Zientifikoaren Kontseilu Nagusiko (CSIC) Ekonomia, Geografia eta Demografia Institutuko zientzialari titularra. Zahartzeari buruzko Ikerketa Taldea.
- 10:30 **II. ponentzia: Bakardadea eta zaintzearen balioa.**  
Aurkezpena. Julia Hernández. Arartekoaren ondokoa.  
Hizlaria: Marije Goikoetxea. Giza Eskubideen arloko doktorea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea.
- 11:15 **Atsedena**
- 11:45 **I. Mahai ingurua: Bakardadeari buruzko ikuspegiak eta azterketak**  
Moderatzailea: Ángel Dolado. Aragoiko Justizia.  
Parte-hartzaileak:
  - Osasun mentalaren ikuspegitik esku hartzea: Iñaki Markez. Psikiatra, Neurozientzietako doktorea "Zubiok" Psikoterapiako Euskal Institutuan. Bilbo.
  - Osasun komunitarioaren ikuspegitik esku hartzea: Javier Segura del Pozo. Madrid Salud erakunde autonomoko Prebentziorako eta Osasun Sustapenerako aholkulari teknikoa. Madrilgo Udala.
  - Gizarte-lanaren ikuspegitik esku hartzea: Mabel Cenizo. Cáritaseko Komunikazio, Gertakari, Prestakuntza eta Boluntariora arloko arduraduna.
  - Gizartean baztertuta daudenekin esku hartzea. Patxi Leturia. Indarkeria Matxistaren Emakume Biktimen Babesteko eta Gizarteratzeko zerbitziburua. Gipuzkoako Foru Aldundia.
- 14:00 **Goizeko saioaren amaiera**



- 16:00 **II. Mahai ingurua: Zaintzea errazteko tresnak**  
Moderatzailea: Emilio Sola. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua.  
Parte-hartzaileak:
- Eraldaketa zaintzaren kontzeptuan eta ereduan, baita zaintzaileen profilean ere. Emilio Sola. Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua.
  - Zaintzen duen komunitatea, IKTen laguntzarekin. Adriana Martínez Sans. APTES.
  - Berrikuntza gizarte- eta osasun-zerbitzuen eraldaketa digitalean. Alfredo Alday. Alda2U.
  - Etxegor proiektua. Aitor Bedialauneta. Euskal Gorrak-eko presidentea. Gorren Elkarteen Euskal Federazioa.
  - Zainketaren arkitekturak. Irati Mogollón eta Ana Fernández Cubero.
- 18:00 **III. ponentzia: Egoitzetako bakardadea eta zainketa, eskubideen ikuspuntutik begiratuta. Covid-19aren eragina.**  
Aurkezpena: Faustino López de Foronda. Arartekoko idazkari nagusia.  
Hizlaria: José Antonio Seoane. Zuzenbide Filosofian katedraduna.  
Coruñaiko Unibertsitatea.



## Irailak 24. Bigarren saioa

- 9:00 **III. Mahai ingurua: bakardadearen gaiari osorik heltzeko estrategiak.**  
Eremu soziosanitarioa. Jarduera egokiak (Europako, Estatuko eta erkidegoko esparruetan).  
Moderatzailea: José Antonio de la Rica. EAEko koordinatzaile soziosanitarioa. Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila.  
Parte-hartzaileak:  
- Bakardadearen kontra borrokatzeko nazioarteko esperientziak. Sacramento Pinazo-Hernandis. Gizarte Psikologiako irakasle titularra Valentziako Unibertsitatean. Pilares fundazioa.  
- Bizkaia Saretu: bakardadeari aurrea hartzeko eskola. Karmele Acedo. Gizarte-zerbitzu integratuetako (SSI) gerentea.
- 10:30 **IV. Mahai ingurua: bakarrik daudenei laguntzea. Jarduera egokiak**  
Moderatzailea: Lourdes Pérez. Aubixa fundazioa.  
Parte-hartzaileak:  
- Elena del Barrio. Matía fundazioa.  
- Maribel Pizarro. Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa.  
- Mercedes Villegas. Adinkideko zuzendaria.  
- Maider González. Portal solidario. Gipuzkoako Gurutze Gorria.
- 12:00 **Atsedena**
- 12:30 **V. Mahai ingurua: pertsonen arteko lotura errazteko tresnak. Zaintzen duten hiriak.**  
Moderatzailea: Inma de Miguel. Gizarte Harremanetako, Azterlanetako eta Modernizazioko zuzendaria. Arartekoa.  
Parte-hartzaileak:  
- Goizalde Arrieta. Oinarrizko Gizarte Ekintza Sekzioa. Gizarte Ekintza Saila. Bilboko Udalan.  
- Maite Ruiz de Sabando Madina. Adinekoen Zerbitzuko erkidegoko zentro eta programetako burua. Gasteizko Udala.  
- Angelines Fernández de Ocáriz. "Piztu zure auzoa" programako parte-hartzailea. Gasteizko Udala  
- Eva Salaberria. Donostia Lagunkoia.  
- Jone Pariza. Barakaldoko Udaleko Immigrazio teknikaria. Barakaldoko Denboraren Bankua.
- 14:00 **Itxiera**

Oinarrizko Gizarte Ekintza Sekzioa